# Erandio!

KULTUR AGENDA CULTURAL

ALDIZKARIA #108

# 174 | URTARRILA / ENERO | 2019 www.erandio.eus | kultura@erandio.eus






E!
Erandio
UDALA
AYUNTAMIENTO

# Erandio!

## AURKIBIDEA
## ÍNDICE

## INFORMAZIO OROKORRA / INFORMACIÓN GENERAL




**MEMORIA ETA ERRITMOA ADINEKO PERTSONENTZAT /** MEMORIA Y RITMO PARA PERSONAS MAYORES
Orria / Página : 3



**ELIKADURA OSASUNGARRIA ETA JARDUNBIDE EGOKIAK /** ALIMENTACIÓN SALUDABLE Y BUENAS PRÁCTICAS
Orria / Página : 4



**BEKOA IKASTETXEAK KIROL ANITZERAKO PISTA BERRIA IZANGO DU** / BEKOA IKASTETXEA NUEVO PATIO MULTIDEPORTE
Orria / Página : 5



**2019ko AURREKONTUA**
PRESUPUESTO 2019
Orria / Página : 7


## KULTUR AGENDA / AGENDA CULTURAL




**ZORO GAITEZEN**
**DENBORAREN TAUPADA**
IKUSKIZUNA / ESPECTÁCULO
Orria / Página : 8



**BALIO MAGIKOAK**
IKUSKIZUNA / ESPECTÁCULO
**UDAL LIBURUTEGIAK**
Orria / Página : 9



**ERREGE KABALGATAK**
CABALGATAS DE REYES MAGOS
Orria / Página : 10



**LOS INCREIBLES**
**TULLY**
ZINEA / CINE
Orria / Página : 11




**PACO PÁEZ / PABLO DE LOS REYES**
BAKARRIZKETA / MONÓLOGO
**ÁREA DE SERVICIO**
**JUEGO DE DAMAS**
ANTZERKIA / TEATRO
Orria / Página : 12



**FARÁNDULA**
CLUB DE LECTURA
Orria / Página : 13




**TTAK**
BAKARRIZKETA / MONÓLOGO
Orria / Página : 14



**SALIR DE CUENTAS A LOS 50**
ANTZERKIA / TEATRO
Orria / Página : 15




**KZ-GUNE - IKASTAROAK**
CURSOS
Orria / Página : 17



**ERAKUNDEAK**
ASOCIACIONES
Orria / Página : 20




# MEMORIA ETA ERRITMOA ADINEKO PERTSONENTZAT

## MEMORIA Y RITMO PARA PERSONAS MAYORES

Nahiz eta Erandioko Adinekoen Ekimenen Lehiaketara aurkeztutako proiektuetatik bat bakarrik irabazle suertatu, guztietan ikus daiteke sustatzen dituztenen eskuzabaltasuna, horiek burutzeko inplikazioa eta oro har dakarten onura. Hilero gero eta gehiago ezagutuko dugu horietako bakoitza.

'Memoriaren eta erritmoaren tailerra' izenarekin, Altzaga Abesbatzak memoria eta erritmoa lantzeko tailerra antolatzen du 60 urtetik gorako pertsonentzat. Proiektu honetan, abestuz entrenamendua, espresioa eta jarduera soziala landu nahi dira. Helburua da oinarrizko entrenamendu musikala egitea, abesbatza batean abestera iritsi daitezen, aurretik esperientziarik edo musika-prestakuntzarik ez izan arren.

Tailerra hilabetean behin egingo da. Memoria eta erritmoa landuko dira maila egokia lor dezaten. Estilo ezberdinetako 3 edo 4 obra praktikatuko dituzte, errepertorioko genero nagusietara hurbiltzeko.

Amaieran, emanaldi bat egingo da parte-hartzaile guztiekin, ikasitakoa praktikan jarri eta jarduerarekin jarraitzen animatzeko.

Aunque solamente uno de los proyectos presentados al Concurso de Iniciativas de Mayores de Erandio resultó vencedor, todos tienen en común el desinterés de quienes los promueven, su implicación para llevarlos a cabo y el beneficio general que suponen. Cada mes conoceremos más cada uno de ellos.

Bajo el nombre 'Taller de memoria y Ritmo', el coro Altzaga Abesbatza organiza un taller de memoria y ritmo para personas mayores de 60 años. Es este un proyecto que convierte la actividad de cantar en un vehículo para el entrenamiento, la expresión y la actividad social. El objetivo es realizar un entrenamiento musical básico para que puedan llegar a cantar en un coro, aunque no tengan experiencia previa ni formación musical.

El taller se realizará una vez al mes. Se trabajará la memoria y el ritmo para que alcancen un nivel adecuado. Se practicarán 3 o 4 obras de estilos diferentes para acercarse a los principales géneros del repertorio. Al finalizar se realizará una actuación integrando a todos los participantes para poner en práctica lo aprendido y para animarles a seguir con la actividad.



# ELIKADURA OSASUNGARRIA ETA JARDUNBIDE EGOKIAK
## ALIMENTACIÓN SALUDABLE Y BUENAS PRÁCTICAS

Arrakastatsua izan da elikagaien prestakuntza, maneiatze eta biltegiratzeko segurtasunari eta dieta osasungarriari buruzko ikastaroa. Helburua zen hartzaileei gaitasunak eta trebetasunak ematea janariak prestatzeko, elikadura osasungarriari buruzko nozioez eta elikagaien manipulaziorako jardunbide egoki eta higieneari buruzko jarraibideez gain, osasunerako arriskuak saihestearren.

28 orduko ikastaroa Jon Mikel López Fernándezek, Giza Nutrizioan eta Dietetikan diplomatuak eta EHUn Elikagaien Zientzian eta Teknologian lizentziatuak, eta Agustín Sánchez Garcíak, Gozogintza, Sukaldaritza eta okintzako irakasleak, eman zuten.

Ikastaroan iraupen luzeko 13 langabek eman zuten izena (10 emakume eta 3 gizon), eta, azkenean, guztira 11 lagunek hartu dute parte (8 emakume eta 3 gizon). Batez besteko asistentzia %98,23koa izan da eta ebaluazioaren azken probako batez besteko nota 7,64 puntukoa (3 pertsonak 10 atera zuten, 2 pertsonak 9, pertsona 1ek 8, 3 lagunek 6 eta 2 lagunek 5).

Ikasleek ikastaroaren inguruan oro har egin duten balorazioa 10etik 9,82 puntukoa izan da batez beste.

Éxito en el curso de Seguridad en la preparación, manipulación y almacenamiento de alimentos y dieta saludable, que tenía como objetivo dotar a los destinatarios de habilidades y destrezas para cocinar, junto a nociones sobre alimentación saludable y de pautas sobre higiene y buenas prácticas de manipulación y elaboración, a fin de evitar riesgos para la salud.

El curso con una duración de 28 horas fue impartido por Jon Mikel López Fernández, Diplomado en Nutrición Humana y Dietética y Licenciado en Ciencia y Tecnología de los Alimentos por la UPV/EHU, y Agustín Sánchez García, profesor de Pastelería, Cocina y Panadería.

En el curso se inscribieron 13 personas (10 mujeres y 3 hombres) paradas de larga duración y finalmente han participado un total de 11 (8 mujeres y 3 hombres) con una asistencia media del 98,23% y una nota media en la prueba final de evaluación de 7,64 puntos (3 personas sacaron 10, 2 personas 9, 1 persona 8, 3 un 6 y 2 un 5).

La valoración media general del curso por parte del alumnado ha sido de 9,82 sobre 10 puntos.



# BEKOA IKASTETXEAK KIROL ANITZERAKO PISTA BERRIA IZANGO DU

## BEKOA IKASTETXEA CONTARÁ CON UNA NUEVA PISTA MULTIDEPORTE

Unai Rementeria, Bizkaiko diputatu nagusia, eta Joseba Goikouria, Erandioko alkatea, akordio batera iritsi dira Bekoa Ikastetxearen ondoan, Altzagan, kirol anitzerako aire zabaleko pista berria egiten parte hartzeko; proiektuak erandiotarren bizi-kalitatea hobetuko du.

Kirol anitzerako pista berria Bekoa Ikastetxearen alboan kokatuko da, Altzaga auzoan; 400 metro karratuko azalera izango du, eta auzoan bizi diren 10.554 pertsonarentzat izango da. Klaseko orduetan ikastolak eta haurreskolak erabiliko dute, eta, ondoren, udalerriko bizilagunentzat irekita egongo da.

**Arteaga**
Asko erabiltzearen ondorioz hondatuta dagoenez, Arteagako udal futbol-zelaiko belar artifiziala ere berrituko da; bertan, 350 jokalari baino gehiagok jokatzen eta entrenatzen dute. Gaur egun, Apurtuarte futbol-taldearen egoitza ofiziala da, baina beste hiru klubek ere erabiltzen dituzte instalazioak: Erandio Kluba Kirol Elkarteak, aurre benjaminetik kategoria erregionalera bitarteko 18 talderekin; Altzaga Ikastolak, bi talderekin (gazteak eta alebinak); eta Tartanga Txipou Kirol Elkarteak, federatu gabeko taldea.

Unai Rementeria, diputado general de Bizkaia, y Joseba Goikouria, alcalde de Erandio, han llegado a un acuerdo para colaborar en la creación de una nueva pista multideporte al aire libre junto a Bekoa Ikastetxea, en Altzaga, un proyecto que mejorará la calidad de vida de los y las erandiotarras. La nueva pista multideporte se instalará junto al edificio de Bekoa Ikastetxea, en el barrio de Altzaga, sobre una superficie de 400 metros cuadrados que dará servicio a las 10.554 personas que viven en el barrio. Su uso estará destinado a la ikastola y a la haurreskola durante las horas de clase para después quedar abierto a los vecinos y vecinas del municipio.

**Arteaga**
Deteriorado como consecuencia del uso intensivo, también se procederá a la renovación de la hierba artificial del campo de fútbol municipal de Arteaga, donde juegan y entrenan más de 350 jugadores y jugadoras. Actualmente sede oficial del club de fútbol Apurtuarte, otros tres clubes más utilizan las instalaciones: la Sociedad Deportiva Erandio Club, con 18 equipos desde la categoría pre-benjamín hasta regional; Altzaga Ikastola, que cuenta con dos equipos, un juvenil y un alevín; y la Asociación Deportiva Tartanga Txipou, con un equipo no federado.

# ERANDIOK 34.510.000 EUROKO AURREKONTUA IZANGO DU 2019. URTEAN

# ERANDIO CONTARÁ CON UN PRESUPUESTO DE 31.510.000 EUROS EN 2019

Erandioko Udalak 34.510.000 euroko aurrekontua onartu du 2019rako; hau da, 2018an baino (32.980.000 euro) %4,6 gehiago, eta helburu nagusia da bizilagunen bizi-kalitatea hobetzen jarraitzea.  Aurrekontuaren zirriborroan 2 milioi eurotik gorako inbertsioaren partida bat gordetzen da (zehazki, 2.075.467 euro, eta horietatik gutxienez 180.000 euro landa-eremuetarako izango dira).

2018an, inbertsioen aurrekontua 1.725.000 eurokoa izan zenez, 2019rako igoera %19,73koa izango da. 2019. urteari begira, ondorengo inbertsioak nabarmendu behar dira: Tartangaren aurrealdea; irisgarritasuna hobetzea Ategorribarri auzoan, igogailua jarrita; merkatu zaharraren kanpoko fasea, egiteko dagoena; Consulado de Bilbao kalea birsortzea eta berrurbaniza- tzea Astrabuduan; Erandiogoikoko San Jose auzoaren berrurbanizazioa hastea; edo itsasadarreko errepidean irisgarritasuna hobetzea, ‘Pinturas’ parean, Lutxanan.

Partida garrantzitsuak gordeko dira hainbat inbertsio egiteko honako hauetan: kirol-arloa, segurtasun-arkuak eta materiala udal-liburutegietan edo San Jose Egoitzako laugarren solairua. Halaber, inbertsio berriak sartuko dira, aurreko ekitaldietan egin den moduan, ekitaldia likidatzean diruzaintzako gerakina ezagutu ondoren. Kontuetan ere hobekuntza garrantzitsuak daude, garbiketa-zerbitzuetarako eta hiriarteko autobuserako.

Beste urte batez, Erandioko Udalak parte hartzeko aurrekontuen kanpaina egin du, hirugarren legegintzaldi honetan. 367 bizilagunek hartu dute parte prozesuan, eta guztira 922 ekarpen egin dituzte.

El Ayuntamiento de Erandio ha aprobado un presupuesto de 34.510.000 euros para 2019, un 4,6 % más que en 2018 (32.980.000 euros) y su principal objetivo sigue siendo la mejora de la calidad de vida de vecinas y vecinos. El borrador presupuestario reserva una partida de más de 2 millones de euros de inversión (concretamente 2.075.467 euros, de los que al menos 180.000 euros irán destinados a zonas rurales).

En 2018 el presupuesto inversor fue de 1.725.000 por cuanto la subida para 2019 es del 19,73%. Destacan para 2019 las inversiones en la delantera de Tartanga; la mejora de accesibilidad en el barrio de Ategorribarri mediante la implantación de un ascensor; la fase exterior pendiente del antiguo mercado; la regeneración y reurbanización de la calle Consulado de Bilbao en Astrabudua; el comienzo de la reurbanización del barrio San José de Erandiogoikoa; o la mejora de la accesibilidad en la carretera de la ría a la altura de ‘Pinturas’ en Lutxana.

Partidas importantes se destinan a diversas inversiones en el área de Deportes, arcos de seguridad y material en las bibliotecas municipales o cuarta planta de la Residencia San José. Se incluirán nuevas inversiones, como se ha hecho en los ejercicios anteriores, una vez se conozca el remanente de tesorería cuando se liquide el ejercicio. Las cuentas presentan también importantes mejoras en los servicios de limpieza y en el autobús interurbano.

Un año más el Ayuntamiento de Erandio ha lanzado una campaña de presupuestos participativos, la tercera de esta legislatura. Han sido 367 las vecinas y vecinos que han tomado parte en este proceso con un total de 922 aportaciones.

| | |
|---|---|
| 1. Funtzio Publikoa eta Gizabaliabideak - Función Pública y Gestión RR.HH | 433.801 € |
| 2. Gizarte Ekintza eta Garapenerako Lankidetza - Acción Social y Cooperación al Desarrollo | 2.657.161 € |
| 3. Kultura - Cultura | 2.098.728 € |
| 4. Osasun Publikoa, Kontsumoa, Berdintasuna eta Kirola - Salud Pública, Consumo, Igualdad y Deportes | 3.614.449 € |
| 5. Hezkuntza, Musika Eskola eta Gazteria - Educación, Escuela de Música y Juventud | 3.027.460 € |
| 6. Obrak, Zerbitzuak, Ingurumena, Hirigintza - Obras, Servicios, Medio Ambiente, Urbanismo | 10.485.027 € |
| 7. Aginte Organoak - Órganos de gobierno | 2.773.443 € |
| 8. Herritarren Segurtasuna - Seguridad Ciudadana | 3.268.035 € |
| 9. Enplegua, Ekonomia Sustapena, Garapena, Merkataritza. eta Euskara - Empleo, Promoción Económica, Desarrollo, Comercio y Euskera | 2.216.762 € |
| 10. Teknologi Berrikuntza, Komunikazioa eta Herritaren Partaidetza - Innovación Tecnológica, Comunicación y Participación Ciudadana | 693.630 € |
| 11. Egoitza eta Egunekoa Zentroa - Residencia y Centro de Día | 2.213.642 € |
| 12. Ogasuna eta Ondarea - Hacienda y Patrimonio | 1.027.862 € |
| **Guztira - Total** | **34.510.000 €** |

Gastuetako Xehetasunak Arloka / Detalle de Gastos por Área

| 2019 | 2018 | s. A/A |
|---|---|---|
| 2.075.467 € | 1.725.000 € | + % 19,73 |

**Inbertsioen Aurrekontua /** Presupuesto de Inversión




**Esfera bakoitzeko Ehunekoa /** Porcetaje por Esfera

# **IKASGELAK /** SALAS DE ESTUDIO

## IKASGELAK ASTEBURUETAN IREKIKO DIRA

## APERTURA DE LAS SALAS DE ESTUDIOS DURANTE LOS FINES DE SEMANA

ALTZAGA-LIBURUTEGIA
ASTRABUDUA- JOSU MURUETA KULTUR ETXEA

**Noiz:** Urtarrilaren 12tik otsailaren 3ra
**Ordua:** 9:00 - 14:00 / 16:00 - 20:00

ALTZAGA-BIBLIOTECA
ASTRABUDUA- CENTRO CULTURAL JOSU MURUETA

**Cuándo:** Del 12 de enero al 3 de febrero
**Hora:** 9:00 - 14:00 / 16:00 - 20:00

**2** URTARRILA / ENERO

Josu Murueta Kultur Etxea / Centro Cultural

19:30 (60') | 2 € | Euskara

www.txirrimirrietatxiribiton.eus

**IKUSKIZUNA** / ESPECTÁCULO

# “ZORO GAITEZEN" (TXIRRI, MIRRI ETA TXIRIBITON)

Txirri, Mirri eta Txiribitonek azkeneko Dantzan eta Erromirria ikuskizunaren arrakasta ona ikusita, bide beretik Zoro Gaitezen obra sortu dute. Antzerkia, komedia, pailazotza eta dantza, baina batez ere martxa uztartzen dituena. Taldearen betiko kantak abestuko dituzte, “Paristik Natorren”, “Txirri, Mirri eta Txiribiton”, “Altza Pelipe”, etab. Bihurrikeriak ere ez dira faltako. Obrak (antzokirako molda liteke) pailazoon abestiak, dantzak eta esketx barregarriak tartekatzen ditu.

Zoro Gaitezen es fruto del éxito logrado con "Dantzan eta Erromirria", una obra que no sólo ofrece teatro, comedia, payasada y baile, sino que sobre todo, ofrece mucha marcha. Se cantan las canciones de siempre: “Paristik Natorren”, “Txirri, Mirri eta Txiribiton”, “Altza Pelipe”, etc. Y cómo no, está llena de travesuras. Una obra de formato para teatros convencionales. Un espectáculo que intercala canciones, bailes y skecthes cómicos.



**3** URTARRILA / ENERO

Josu Murueta Kultur Etxea Centro Cultural

Euskara

19:30 (60')

www.patatatropikala.com

**HAUR IKUSKIZUNA** / ESPECTÁCULO INFANTIL

# “DENBORAREN TAUPADA" (PATATA TROPIKALA)

**Sinopsia**: Fabrika zaharra dagoen tokira, neska bat iritsi da bere maletarekin. Odei du izena. Baina, bertan zerbait arraroa gertatzen ari da... Guztiak haserre bizi dira. Ez dute denborarik ezertarako. Mari Ipuin Kontalariak esaten duen moduan, zerbait kutsakorra da. Hasieran helduak kutsatu ziren, ondoren gazteak eta azkenean haurrak ere kutsatu dira. Kalejira bat egitea bururatu zaie arrazoiak ezagutzeko. Permin, Kale garbitzaileak, malabareak egingo ditu, Marik gitarra eta Odeik txirula joko dute. Baina ez dute ezer topatzen... Itzaletan ordea, Denboraren lapurrak daude guztia ikusten. Gertatzen ari dena, ezin dute onartu, eta gure hiru lagunak arrapatzera abiatzen dira. Lortuko dute gure lagunek, gaixotasun arraro honetatik, haurrak askatzea?

**Sinopsis:** Una niña ha llegado con su maleta a la vieja fábrica. Se llama Odei. Pero allí está pasando algo extraño… Todos viven enojados. No tienen tiempo para nada. Como dice Mari la Contadora de Cuentos, es algo contagioso. Al principio se contagiaron los adultos, después los jóvenes y por último se han infectado los niños. Se les ha ocurrido organizar un desfile para descubrir las razones. Permin, el barrendero, hará malabares, Mari tocará la guitarra y Odei la flauta. Pero no encuentran nada… En las sombras, en cambio, están los ladrones del Tiempo contemplándolo todo. No pueden aceptar lo que está sucediendo y se dirigen a atrapar a nuestros tres amigos. ¿Conseguirán nuestros amigos liberar a los niños de esta rara enfermedad?

**4** URTARRILA / ENERO

Josu Murueta Kultur Etxea/ Centro Cultural

19:30(60') 2 € Bilingüe

**MAGIA** / MAGIA

# "BALIO MAGIKOAK / VALORES MÁGICOS"

"Balio Magikoak" ikuskizunean, Oliver Magoak, Evak, Liubak eta ume laguntzaileekin atsegin emango digute magiaz betetako ikuskizun honekin: bizitza berreskuratzen duten objektuak eta marrazkiak, ikusleengandik ateratako magia, errezeta magiko sinesgaitzak eta efektu berezi txundigarriak. Hau guztia umore, emozio, erritmo handi eta antzerki-izaeraz beteta.

"Valores Mágicos" es un espectáculo donde Óliver, Eva, Liuba y varios niños colaboradores nos deleitarán con increíbles números de magia: objetos y dibujos que recobran vida, magia que sale de los propios espectadores, recetas mágicas inverosímiles e impactantes efectos especiales. Todo ello con humor, emoción, mucho ritmo y teatralidad.

info@magooliver.com www.magooliver.com



## GABONETAKO HAURREN EGITARAU KULTURALA / PROGRAMA CULTURAL INFANTIL DE NAVIDAD

Txikien Txanda kultur programan, txikienentzako jarduera ludiko eta aisiarako jarduera ezberdinak proposatzen dira, baita antzerki-emanaldiak ere, Gabonetako jaietan entretenimendua eta dibertimendua bermatzeko.

Haurren parkea - Astrabuduko kiroldegia
Sarrera doan dena bete arte
Puzgarriak, ludoteka, tailerrak, jolas tradizionalak eta kooperatiboak, simuladoreak, e.a.
**Egunak:** Urtarrilak 2-3-4-5
**Ordutegia:** 11:00-14:00 eta 16:00-19:00

El programa cultural Txikien Txanda propone a los mas pequeños distintas actividades lúdicas y recreativas y una oferta de espectáculos teatrales para garantizar el entretenimiento y diversión durante las fiestas navideñas.

Parque infantil - polideportivo Astrabudua
Entrada libre hasta completar aforo
Hinchables, ludoteca, talleres, juegos tradicionales y cooperativos, simuladores, etc...
**Días:** 2-3-4-5 enero
**Horario:** 11:00-14:00 y 16:00-19:00

# **ERREGE KABALGATA** / CABALGATA DE REYES MAGOS

## ASTRABUDUA



Itsasadarretik iritsiko dira su artifizial eta guzti. Auzoan zehar igaroko dira, eta gozokiak banatuko dituzte. Haurrak elizako arkupeetan hartuko dituzte fotocall-arekin. Harreran txokolatada egongo da.

**Lekua:** Astrabudua
**Eguna:** urtarrilak 5
**Ordua:** 18:00

**Antolatzailea:** Gizarte Unamaz Alkartuak

Llegada por la ría con fuegos artificiales. El recorrido será por el barrio repartiendo caramelos. A continuación se recibirá a los niños y niñas con fotocall en los pórticos de la iglesia. Chocolatada durante la recepción.

**Lugar:** Astrabudua
**Fechas:** 5 de enero
**Horario:** 18:00

**Organiza:** Gizarte Unamaz Alkartuak

## ALTZAGA



**Lekua:** Altzaga
**Eguna:** urtarrilak 5
**Ordua:** 18:30

**Antolatzailea:** Asociación de la cabalgata de Erandio Jado Ikastetxea

**Lugar:** Altzaga
**Fechas:** 5 de enero
**Horario:** 18:30

**Organiza:** Asociación de la cabalgata de Erandio Jado Ikastetxea

**12** LARUNBATA / SÁBADO

Josu Murueta Kultur Etxea / Centro cultural

2 €

Castellano

ZINEMA / CINE

## "LOS INCREIBLES 2"

17:00

**Sinopsia:** "Los increíbles" pelikularen ondorena. Helenek kanpaina bat zuzendu behar du superheroiak itzul daitezen. Bitartean, Bobek "ohiko" bizia egiten du Violet, Dash eta Jack-Jack haurtxoarekin batera (horien superbotereak ezagutuko ditugu). Haien egitekoak porrot egingo du bilau bat agertzean dena mehatxatuko duen plan bikainarekin. Baina Parr familia ez da kikilduko eta are gutxiago Frozone haien alde edukita.
**Iraupena:** 118'
**Herrialdea:** Estatu Batuak
**Gomendatutako adina:** +6 urte

**Sinopsis:** Secuela de "Los increíbles". Helen tiene que liderar una campaña para que los superhéroes regresen, mientras Bob vive su vida "normal" con Violet, Dash y el bebé Jack-Jack (cuyos superpoderes descubriremos). Su misión se va a pique cuando aparece un nuevo villano con un brillante plan que lo amenaza todo. Pero los Parr no se amedrentarán y menos teniendo a Frozone de su parte.
**Duración:**118'
**País:** Estados Unidos
**Edad recomendada:** +6 años



ZINEMA / CINE

## "TULLY"

20:00

**Sinopsia:** Marlo (Charlize Theron) hiru seme-alaba dituen ama da, azkena jaio berria, eta anaiak (Mark Duplass) ustekabeko oparia egingo dio: umezain bat gauetan laguntzeko. Hasieran bitxikieria iruditkuo zaio, baina Marlok Tullyrekin (Mackenzie Davis) harreman paregabea izaten amaituko du; umezain gazte atsegina da, harrigarria, eta, batzuetan, zaila.
**Iraupena**: 94'
**Herrialdea:** Estatu Batuak
**Gomendatutako adina:** +12 urte

**Sinopsis:** Marlo (Charlize Theron) es una madre con tres hijos, el último recién nacido, que recibe un inesperado regalo de parte de su hermano (Mark Duplass): una niñera para que le ayude por las noches. Al principio le parece una extravagancia, pero Marlo acaba teniendo una relación única con Tully (Mackenzie Davis), una joven niñera amable, sorprendente y, en ocasiones, difícil.
**Duración:** 94'
**País:** Estados Unidos
**Edad recomendada:** +12 años



**19** LARUNBATA / SÁBADO

Josu Murueta Kultur Etxea / Centro Cultural

20:00 | 2 € | Castellano

# "PACO PÁEZ Y PABLO DE LOS REYES"

**UMOREZKO BAKARRIZKETAK** / MONÓLOGO

**Sinopsia:** telebistako bikote komiko onenak ezkontzan eta egonkortasunean amaitzen duten bikoteak izan ohi dira; hots, aurkako poloak izan ohi dira, elkarren osagarriak eta publikoarekin enpatizatzen dutenak. Beste batzuk, berriz, guztiok izan nahi ditugun lagunak dira, eta bizitza errealean haietara egokitu edo haien txantxak onartzen ditugu. Baina, azkenean irauten duena telebistaren aurrean bikote komiko horiekin egiten ditugun barreak dira. Horixe da Pablo de los Reyesek eta Paco Paezek beren ikuskizunean antzeztuko dutenaren adibide argia.

**Sinopsis:** Los mejores dúos cómicos de la televisión suelen ser parejas que terminan en boda y estabilidad, suelen ser polos opuestos que se complementan y que empatizan con el público. Otros, son los amigos que todos deseamos tener o de quienes adaptamos y aceptamos bromas en la vida real. Sin embargo, lo que al final permanece son las risas que echamos frente al televisor con estos dúos cómicos. Esto es un ejemplo claro de lo que representan Pablo de los Reyes y Paco Páez en su espectáculo.



**PACO PÁEZ**



**PABLO DE LOS REYES**

**20** IGANDEA / DOMINGO

Josu Murueta Kultur Etxea / Centro Cultural

19:00 | 2 € | Castellano

# "ÁREA DE SERVICIO - JUEGO DE DAMAS "

**ANTZERKIA** / TEATRO

**Sinopsia:** zazpi emakume erromesaldian doaz santu ezberdinengana, haien esku har- tzea eskatu eta bizimodua aldatzeko. Baina patuak sorpresa ugari ditu haientzat. Hasteko, gasolindegi zahar eta huts batean abandonatuta geratuko dira, eta errealitatearekin konektatzeko modu bakarra irratia izango dute. Irratiaren bitartez, kanpotik iristen zaizkien albiste eta mezu ezberdinak biziko dituzte. Gutxi balitz bezala, ez dago estaldurarik. Modu horretan hasiko da obra osoan zehar egoera dibertigarri eta mingarri ugari izango dituen komedia. Zer egiteko gai izango ote dira 7 emakume bakarrik, giltzaperatuta, abandonatuta eta telefonorik gabe?

**Sinopsis:** Siete mujeres viajan en un autobús en peregrinación a distintos santos, para solicitar su intervención y así cambiar sus vidas. Pero el destino les tiene reservadas muchas sorpresas. De momento se verán abandonadas en una vieja y desértica estación de servicio, donde su único contacto con la realidad será una radio y a través de ella irán viviendo las diferentes noticias y mensajes que les llegan desde el exterior. Para colmo, no hay cobertura. Así comienza esta comedia que tendrá muchas situaciones divertidas y dolorosas durante toda la obra. ¿Se imaginan que son capaces de hacer 7 mujeres solas, encerradas, abandonadas y sin teléfono?

**22** ASTEARTEA / MARTES

Sala Azul / Gela Urdina
Josu Murueta Kultur Etxea / Centro Cultural
19:30 Libre Castellano

**IRAKURLE KLUBA** / CLUB DE LECTURA

# **"FARÁNDULA"** (MARTA SANZ)

Premio Herralde de novela 2015




**Sinopsia**
Nobelaren argumentua antzerkiaren munduaren ingurukoa da, eta pertsonaia galeria zabala deskribatzen du haien argi eta itzalekin. Valeria Falcón nolabaiteko ospea duen aktorea da, ostegunero antzerkiko gloria zahar bat bisitatzera joaten dena, Ana Urrutia. Urrutiak Diogenesearen sindromea du, eta ez du non hil…". Glamourraren eta konpromisoaren arteko kontraesanaren historia da, adierazpenak sinatzen dituzten aktore aberatsen eta, inork kontuan ez dituelako, ezer sinatzen ez duten aktore pobreen ingurukoa. Marta Sanzek ez du herrialde honetako beste idazleen antzik. Barrea erabiltzen du diagnostikoa egiteko erreminta gisa: testu zakarra, dibertigarria, tristea, puntazorrotza, larria. Farándula da.

**Egilea**:
Marta Sanz Filologian doktorea da. Ondorengo nobelak argitaratu ditu: El frío, Lenguas muertas, Los mejores tiempos (Begi Kritikoa Saria 2001ean), Animales domésticos, Susana y los viejos (Nadaleko finalista 2006an) eta La lección de anatomía. 2007. urtean, Kontakizunen Mario Vargas Llosa NH Saria jaso zuen.



**Sinopsis:**
El argumento de esta novela gira en torno al mundo del teatro y describe una amplia galería de personajes con sus luces y sus sombras. Valeria Falcón es una actriz de cierta notoriedad que cada jueves visita a una vieja gloria del teatro, Ana Urrutia. La Urrutia padece el síndrome de Diógenes y no tiene dónde caerse muerta..." Una historia sobre la contradicción entre el glamour y el compromiso, sobre los actores ricos que firman manifiestos y los actores pobres que no firman nada porque nadie los tiene en cuenta... Marta Sanz no se parece a ningún otro escritor de este país. Utiliza la risa como herramienta de diágnostico: Un texto borde, divertido, triste, puntiagudo, urgente. Es Farándula."

**Autora:**
Marta Sanz es doctora en Filología. Ha publicado las novelas El frío, Lenguas muertas, Los mejores tiempos (Premio Ojo Crítico 2001), Animales domésticos, Susana y los viejos (finalista del Nadal en 2006) y La lección de anatomía. En 2007 recibió el Premio Mario Vargas Llosa NH de Relatos.

**23** ASTEAZKENA / MIÉRCOLES

Josu Murueta Kultur Etxea Centro Cultural

Euskara

Doan / Gratuita

19:00

**BAKARRIZKETA** / MONÓLOGO

# "TTAK" (BEATRIZ EGIZABAL)

**Sinopsia:** Beatriz Egizabal klown eta antzerkilariak Euskaraldia ekimenaren harira umorea ardatz duen bakarrizketa saio bat eskainiko digu. Horretarako, ikusleak egoeran jarri nahi ditu eta norbere hizkuntza jokabideen hausnarketa probokatu nahi du umore klabean.

**Sinopsis:** La dramaturga y clown Beatriz Egizabal nos ofrecerá un monólogo con el humor como eje central acerca del evento Euskaraldia. Para ello quiere poner al público en situación y provocar una reflexión en clave de humor sobre el comportamiento lingüístico de cada cual.



**26** LARUNBATA / SÁBADO

Josu Murueta Kultur Etxea
Centro Cultural
4 €

Castellano
20:00 (80')

**ANTZERKIA** / TEATRO

# "SALIR DE CUENTAS A LOS 50"



**Sinopsia**: komedia oso zoroa, eta ziur aski uneren batean identifikatuta sentituko gara egoera ezberdinekin. 25 urtetik aurrera, zaila da honako galdera hauek zuri egin gabe geratzea: Eta zuk noizko...? Noizko mutil-laguna edo neskalaguna, noizko bizi bikotean edo noiz ezkondu, noizko haurra, noizko bigarren haurra, noizko basektomia, noizko,…?
Gogoa dudanean! Obra honetako protagonistek gogoa dutenean egitea erabaki dute, baina haien lagunek, familiak eta handik igarotzen den edonork, asko dute esateko. Gehiegi. Badakizu zertaz ari naizen, ezta? Komedia hau hasi berrientzat, familia ugariko gurasoentzat, Dinkins-entzat, ezkongabeentzat, ezkonduentzat,… da. Mundu osoarentzako komedia.
Zatoz bizitzaz barre egitea Tdiferencia-rekin!

**Zuzendaritza:** Garbi Losada.
**Ekoizpena:** Tdiferencia.
**Aktoreak**: Maite Redín, Patxi Pérez, Mila Espiga.
**Autoreak:** Jose Antonio Vitoria eta Garbi Losada, Tdiferencia-ren ideia orijinala.

**Sinopsis:** Una comedia muy loca, en la que seguro nos sentiremos identificado/as con diferentes situaciones en algún momento. De los 25 años en adelante es difícil que no hayas pasado por las preguntas de; ¿Y tú para cuándo...?
¿Para cuándo un novio o una novia, para cuándo vivir en pareja o casaros, para cuándo tu bebé, para cuándo tenéis la segunda criatura, para cuándo la vasectomía... para cuándo...?
¡Para cuando me dé la gana!
Quienes protagonizan esta obra han decidido hacerlo cuando les ha dado la gana pero sus amistades, familia y cualquiera que pasa por allí, tiene mucho que decir. Demasiado. ¿Sabes de qué hablo, verdad? Una comedia para primerizos, para madres y padres con familia numerosa, Dinkins, soltero/as, casado/as... Una comedia para todo el mundo.

**Directora:** Garbi Losada.
**Producción y distribución:** Tdiferencia.
**Elenco:** Maite Redín, Patxi Pérez, Mila Espiga.
**Autores:** Garbi Losada y Jose Antonio Vitoria. Idea original de Tdiferencia.

**27** IGANDEA / DOMINGO

Elordui Berria taberna
Goierri-Erandio

13:30

**KONTZERTUA** / CONCIERTO

# "UNAI BREA ETA JOSU ZARATE"

Josu eta Unai izenez ibiltzen da Unai Break eta Josu Zaratek osatutako bikotea tabernaz taberna kantari. Biak dira uribekostarrak, Berangokoa Brea eta Erandiokoa Zarate, kaleko kantugintzaren mundutxoan ondo ezagunak, Zarate batez ere, Altzagako eta Astrabuduko kantaguneak zuzentzen baititu, Bilbokoaz gain, besteak beste. Horietan eta besteren batean ere ibiltzen da Unai Brea, gitarraz laguntzen. Emanaldiak sinpleak izaten dira: gitarra eta ahots bi. Ia errepertoria osoa euskaraz egiten dute, batetik euskal bakarlarien pieza ezagunak eta ez hain ezagunak, zaharrak eta berriak, alaiak eta tristeak... kantatzen (Benito Lertxundi, Mikel Laboa, Patxi Saiz, Josu Bergara, Anje Duhalde...); bestetik Iparraldeko doinuak emanez, horietako batzuk oso ezagunak gure artean, eta beste batzuk, berriz, Hegoaldean apenas entzundakoak, Break eta Zaratek Iparraldearekin duten harreman estuari esker ikasiak. Aipatzekoak dira, zentzu horretan, zuberotarrei ikasitako eta a capella kantutako bizpahiru doinu. Osagarri modura, Hegoamerikako kanturen bat edo beste gehitu ohi dute. Sarritan jotzen dute Uribe Kostan eta inguruko herrietan.

El dúo conformado por Unai Brea y Josu Zarate actúa como cantantes de bar en bar con el nombre de "Josu eta Unai". Ambos son de Uribe Kosta, Brea de Berango y Zarate de Erandio, muy conocidos en el mundillo de la música callejera, sobre todo Zarate ya que dirige los Kantagune de Altzaga y Astrabudua, además del de Bilbao, entre otros. Unai Brea colabora tocando la guitarra en esos y en algunos más. Las actuaciones suelen ser simples: guitarra y dos voces. Casi todo el repertorio se realiza en euskera, por un lado piezas conocidas y no tan conocidas de solistas euskaldunes, pasadas y actuales, alegres y tristes… (Benito Lertxundi, Mikel Laboa, Patxi Saiz, Josu Bergara, Anje Duhalde...); por otro lado, algunas melodías de Iparralde muy populares entre nosotros, y otras cuantas, en cambio, apenas escuchadas en Hegoalde, aprendidas gracias a estrecha relación que tienen Brea y Zarate con Iparralde. Vale la pena mencionar, en ese sentido, dos o tres cantos a capella aprendidos de los zuberotarras. Como complemento, añadirán alguna que otra canción de Sudamérica. A menudo tocan en Uribe Kosta y en los pueblos de los alrededores.



# KZ GUNEA ALTZAGA

## PLANIFIKATUTAKO EKINTZA / *ACTIVIDAD PLANIFICADA*

### AURREZ AURREKOAK, GAZTELERAZ / PRESENCIALES, EN CASTELLANO

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| URTARRILAREN 7tik 16ra<br>DEL 7 al 16 de ENERO | ARGAZKI UKITUA. GIMP erabiliz<br>RETOQUE FOTOGRÁFICO. Con GIMP | 09:00 - 11:00 | 16h | LMXJV |
| URTARRILAREN 17tik 30era<br>DEL 17 al 30 de ENERO | OINARRIZKO INTERNETA. Nabigatzen eta posta elektronikoak bidaltzen ikasi<br>INTERNET BÁSICO. Aprende a navegar y enviar correos electrónicos | 09:00 - 11:00 | 20h | LMXJV |
| URTARRILAREN 21etik 29ra<br>DEL 21 al 29 de ENERO | SMARTPHONE ETA TABLETAK. Zure Android gailua erabiltzen ikasi<br>SMARTPHONES Y TABLETS. Aprende a utilizar tu dispositivo Android | 11:00 - 13:00 | 14h | LMXJV |
| URTARRILAREN 31<br>31 de ENERO | GOOGLE TRADUCTOR.Testuak eta web orriak itzuli<br>GOOGLE TRADUCTOR. Traduce textos y páginas web | 09:00 - 11:00 | 2h | J |
| URTARRILAREN 31<br>31 de ENERO | Sasoi ona lortu azken kirol aplikazioekin<br>Mantente en forma con las últimas apps deportivas | 11:00 - 13:00 | 2h | J |

### URRUNEKO FORMAZIOA / FORMACIÓN A DISTANCIA

| | | |
|---|---|---|
| URTARRILAREN 7tik OTSAILAREN 6ra<br>DEL 7 de ENERO al 6 de FEBRERO | OFIMATIKA AURRERATUA<br>OFIMÁTICA AVANZADA | 40h |
| URTARRILAREN 7tik OTSAILAREN 6ra<br>DEL 7 de ENERO al 6 de FEBRERO | OFIMATIKA OROKORRA<br>OFIMÁTICA GENERAL | 40h |
| URTARRILAREN 1etik 23ra<br>DEL 1 al 23 de ENERO | WIKILOC. Sortu eta partekatu zure kanpoko ekintzen ibilbideak<br>WIKILOC Crea y comparte tu rutas al aire libre | 20h |
| URTARRILAREN 14tik 23ra<br>DEL 14 al 23 de ENERO | FACEBOOK<br>FACEBOOK | 4h |
| URTARRILAREN 21etik OTSAILAREN 6ra<br>DEL 21 de ENERO al 6 de FEBRERO | EMAIL MARKETING kanpainak sortu<br>Crea tus campañas de EMAIL MARKETING | 20h |
| URTARRILAREN 28tik OTSAILAREN 6ra<br>DEL 28 de ENERO al 6 de FEBRERO | INSTAGRAM argazkiak atera eta partekatu zure unerik onenak<br>INSTAGRAM captura y comparte tus mejores momentos | 4h |

**KZ GUNEA Altzaga**
Antonio Trueba 21 | 944033342 |
tutor.ERANDIO@kzgunea.net | www.kzgunea.eus |
www.kzgunea.eus
kzgunea.blog.euskadi.eus
facebook.com/kzgunea
twitter.com/kzguneatic

# KZ GUNEA ASTRABUDUA

## PLANIFIKATUTAKO EKINTZA / *ACTIVIDAD PLANIFICADA*

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| 7 **URTARRILA** / ENERO | **IT TXARTELA** | 9:00 - 11:00 | 2h | L |
| 22 **URTARRILA** / ENERO | **IT TXARTELA** | 18:00 - 20:00 | 2h | M |
| 23 **URTARRILA** / ENERO | **IT TXARTELA** | 18:00 - 20:00 | 2h | X |
| 31 **URTARRILA** / ENERO | **IT TXARTELA** | 18:00 - 20:00 | 2h | J |

### AURREZ AURREKOAK, GAZTELERAZ / PRESENCIALES, EN CASTELLANO

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| URTARRILAREN 2tik15era<br>DEL 2 al 15 de ENERO | OINARRIZKO INTERNETA. Nabigatzen eta posta elektronikoak bidaltzen ikasi<br>INTERNET BÁSICO. Aprende a navegar y enviar correos electrónicos | 11:00 - 13:00 | 20h | LMXJV |
| URTARRILAREN 2tik 11ra<br>DEL 2 al 11 de ENERO | GOOGLE APLIKAZIOAK. Zure kudeaketa pertsonalerako<br>APLICACIONES GOOGLE. Para tu gestión personal | 16:00 - 18:00 | 16h | LMXJV |
| URTARRILAREN 7tik 17ra<br>DEL 7 al 17 de ENERO | GOOGLE APLIKAZIOAK. Zure gailuetarako<br>APLICACIONES GOOGLE. Para tus dispositivos | 18:00 - 20:00 | 18h | LMXJV |
| URTARRILAREN 8tik 17ra<br>DEL 8 al 17 de ENERO | ARGAZKI UKITUA. GIMP<br>RETOQUE FOTOGRÁFICO. GIMP | 09:00 - 11:00 | 16h | LMXJV |
| URTARRILAREN 14a<br>14 de ENERO | GOOGLE CALENDAR. Zure denboraren kudeaketa hobetu<br>GOOGLE CALENDAR. Gestiona mejor tu tiempo | 16:00 - 18:00 | 2h | L<br>Euskaraz |

**KZ GUNEA Astrabudua** | Atxutegi 6 | tutor.astrudua@kzgunea.net | 944033343 | www.kzgunea.eus

www.kzgunea.eus
kzgunea.blog.euskadi.eus
facebook.com/kzgunea
twitter.com/kzguneatic

# KZ GUNEA ASTRABUDUA

## AURREZ AURREKOAK, GAZTELERAZ / PRESENCIALES, EN CASTELLANO

| | | |
|---|---|---|
| URTARRILAREN 15etik 28ra<br>DEL 15 al 28 de ENERO | OFIMATIKA TRESNAK. LibreOffice<br>HERRAMIENTAS OFIMÁTICAS. LibreOffice | 16:00 - 18:00<br>20h \| LMXJV |
| URTARRILAREN 16tik 25era<br>DEL 16 al 25 de ENERO | SMARTPHONE ETA TABLETAK. Zure Android gailua erabiltzen ikasi<br>SMARTPHONES Y TABLETS. Aprende a utilizar tu dispositivo Android | 11:00 - 13:00<br>14h \| LMXJV |
| URTARRILAREN 18tik 21era<br>DEL 18 al 21 de ENERO | ARGAZKIAK. Zure argazki guztiak antolatu gailutik<br>FOTOS. Organiza todas las fotos de tus dispositivos | 18:00 - 20:00<br>2h \| LV |
| URTARRILAREN 29tik 31ra<br>DEL 29 al 31 de ENERO | LIBRE OFFICE CALC. Zure kalkulu orriak sortu<br>LIBRE OFFICE CALC. Crea tus propias hojas de cálculo | 16:00 - 18:00<br>6h \| MXJ |

## URRUNEKO FORMAZIOA / FORMACIÓN A DISTANCIA

| | | |
|---|---|---|
| URTARRILAREN 7tik OTSAILAREN 6ra<br>DEL 7 de ENERO al 6 de FEBRERO | OFIMATIKA AURRERATUA<br>OFIMÁTICA AVANZADA | 40h |
| URTARRILAREN 7tik OTSAILAREN 6ra<br>DEL 7 de ENERO al 6 de FEBRERO | OFIMATIKA OROKORRA<br>OFIMÁTICA GENERAL | 40h |
| URTARRILAREN 7tik 23ra<br>DEL 7 al 23 de ENERO | WIKILOC. Sortu eta partekatu zure kanpoko ekintzen ibilbideak<br>WIKILOC Crea y comparte tu rutas al aire libre | 20h |
| URTARRILAREN 14tik 23ra<br>DEL 14 al 23 de ENERO | FACEBOOK<br>FACEBOOK | 4h |
| URTARRILAREN 21etik OTSAILAREN 6ra<br>DEL 21 de ENERO al 6 de FEBRERO | EMAIL MARKETING kanpainak sortu<br>Crea tus campañas de EMAIL MARKETING | 20h |
| URTARRILAREN 28tik OTSAILAREN 6ra<br>DEL 28 de ENERO al 6 de FEBRERO | INSTAGRAM argazkiak atera eta partekatu zure unerik onenak<br>INSTAGRAM captura y comparte tus mejores momentos | 4h |

**KZ GUNEA Astrabudua** | Atxutegi 6 | tutor.astrudua@kzgunea.net | 944033343 | www.kzgunea.eus |
www.kzgunea.eus
kzgunea.blog.euskadi.eus
facebook.com/kzgunea
twitter.com/kzguneatic

# ELKARTEAK / ASOCIACIONES

Informazio honen argitalpena jarduerak antolatzen dituzten Erandioko elkarteen eskariz egiten da, eta horrek ez du kentzen kasuan kasuko baimenak eskuratu beharra.

La publicación de esta información se realiza a petición de las asociaciones de Erandio que organizan actividades, y no exime de la necesidad de contar con los permisos y autorizaciones pertinentes en cada caso.

## AUSARTZEN KULTUR ELKARTEA

**Urtarrilak 11:** lankidetza-jolasak.
**Urtarrilak 18:** sukaldaritza-tailerra, fruta-brotxetak.
**Urtarrilak 25:** geure xaboia egingo dugu.

Ausartzen Elkartea irabazi-asmorik gabeko elkartea da, eta Erandioko Anton Fernandez kaleko 3. zenbakian aurkitzen da. Aisiarako jarduerak, jolasak eta tailerrak antolatzen ditu 11 eta 17 urte arteko gazteentzat, ostiral arratsaldetan. Lehen zatian, jarduera gidatuak egiten dituzte, eta bigarren zatian jolas librea. Egiten ditugun jarduerak ikus ditzakezue instagram-en (@ausartzen).

Jardueretan parte hartzeko, inskripzio-orria ekarri behar da. Orria Ausartzen Elkartean jaso daiteke astelehenetik ostiralera 16:30etik 19:30era.

**11 de enero**: juegos cooperativos.
**18 de enero**: taller de cocina, brochetas de fruta.
**25 de enero:** creamos nuestro propio jabón.

Ausartzen Elkartea es una asociación sin ánimo de lucro, situada en la calle Antón Fernández número 3, Erandio. Se dedica a realizar actividades, juegos y talleres en tiempo de ocio, dirigidas a menores de entre 11 y 17 años, los viernes por la tarde, siendo la primera parte de la tarde actividades dirigidas, y la segunda parte juego libre. Podéis seguir las actividades que realizamos en instagram @ausartzen. Para participar de las actividades es necesario traer la hoja de inscripción, que se puede recoger en Ausartzen de lunes a viernes de 16:30 a 19:30.

## ASTRABUDUKO FOTO CLUB

Urtarrileko hileko irteera , urtarrilaren 20an egingo dugu, eta Mundaka eta inguruetara joango gara. Goizeko 8:00etan irtengo gara Astrabuduko taxi-geltokitik eta 14:00ak aldera itzuliko gara. Asteartero, 19:30etik 21:00etara Astrabuduko anbulatorio zaharreko lokaletan elkartzen gara, eta, bertan, argazkigintzaren inguruko tailerrak, hitzaldiak eta gainerako jarduerak egiten ditugu. Joan nahi dutenak lasai joan daitezke, inolako konpromisorik gabe.

**Urtarrilak 5:** Erregeen desfilearen antolatzaileekin lan egingo dugu, eta Errege Magoen opariak eskatzera joaten diren haur guztiei argazkiak aterako dizkiegu.
**Urtarrilak 8:** oporretatik itzuli eta hilabeteko jarduerak antolatuko ditugu.
**Urtarrilak 15**: igandean egingo dugun irteerarako beharrezkoa denaren inguruko hitzaldia.
**Urtarrilak 22:** kritika eraikitzailea, argazkiak komentatuko ditugu Flickr-eko horma-irudian.
**Urtarrilak 29:** argazkilari garrantzitsuak.

La salida mensual del mes de Enero será el domingo día 20 a Mundaka y alrededores, saldremos a las 8 de la mañana de la parada de taxis de Astrabudua y regresaremos sobre las 14 horas. Todos los martes nos reunimos de 19:30 h. a 21 h. en los locales del antiguo ambulatorio de Astrabudua, donde realizamos talleres, charlas y demás actividades relacionadas con la fotografía. Toda la gente que quiera puede acudir libremente sin ningún compromiso.

**5 de enero**: colaboramos con la cabalgata de Reyes retratando a todos los niños que acuden a pedir sus regalos.
**8 de enero**: regreso de vacaciones, preparamos las actividades del mes.
**15 de enero**: charla sobre lo necesario para la salida del domingo.
**22 de enero**: crítica constructiva, comentaremos las fotos en el mural de Flickr.
**29 de enero:** Fotógrafos relevantes.

i

Astrabuduko Fotoclub
astrabudukofotoclub@gmail.com
639 239 274

Web: http://www.flickr.com/groups/astrabuduko-foto-club/
Facebook: http://www.facebook.com/groups/ASTRABUDUKOFOTOCLUB/

# ELKARTEAK / ASOCIACIONES

## ASOCIACIÓN MUJERES DE ERANDIO

**Ekitaldia:** Zine-Foruma eta Luncha.
**Eguna:** urtarrilak 25, ostirala.
**Ordua**: 18:00.
**Lekua:** Elkarteko lokala, San Agustin plaza 1 behea

**Tailerra:** Mikroindarkeria.
**Eguna:** astelehen eta asteartean.
**Ordua**: 18:00 - 20:00.
**Lekua:** Elkartearen bulegoan.

**Acto:** Cine Forum y lunch.
**Día:** 25 de enero, viernes.
**Hora:** 18:00.
**Lugar:** Local Asociación plaza San Agustin 1 Bajo

**Taller:** Microviolencia.
**Cuando:** lunes y martes.
**Hora:** 18:00 - 20:00.
**Lugar:** En la oficina de la asociación.

## ASOCIACIÓN MUJERES DE ASTRABUDUA

i Local en el Antiguo Ambulatorio
Lunes y jueves de 18:30 a 20:00

**Ekitaldia:** Zine-Foruma.
**Eguna:** urtarrilak 25, ostirala.
**Ordua**: 17:00.
**Lekua:** Josu Murueta ekitaldien aretoan.

**Ekitaldia:** Barreterapia.
**Eguna:** astelehenetan 17:30etik 19:00etara.
**Lekua:** dbh-ko institutuaren alboko eraikinean.
EMAN IZENA!

**Acto:** Cine- Forum.
**Día**: 25 de enero, viernes.
**Hora:** 17:00.
**Dónde:** Salón de actos Josu Murueta.

**Acto:** Risoterapia.
**Día:** Los lunes de 17:30 a 19:00.
**Dónde**: Edificio contíguo al I.E.S.
¡APÚNTATE!

## ASOCIACIÓN JUBILADOS ALTZAGA

Altzaga-Erandioko Erretiratuen Elkarteak bi ikastaro jarriko ditu:
**Gimnasia**: asteazkenetan, 11:00etatik 12:00etara
**Chikung**: ostegunetan, 9:30etik 10:45era.

Eman izena 18:00etatik 20:00etara. Astearte eta ostegunetan, Altzagako Erretiratuen Elkartearen lokalean.

La Asociación de Jubilados Altzaga-Erandio pone en marcha dos nuevos cursos:
**Gimnasia:** miércoles de 11:00 a 12:00.
**Chikung:** jueves de 9:30 a 10:45.

Apuntarse de 18:00 a 20:00. Martes y jueves en el Local de Asociación Jubilados Altzaga.

## AUZOKOA HERRIKOI ELKARTEA

i auzokoherrikoielkartea@gmail.com | 656778282

**Dantza modernoaren tailerra:** astelehenetan, 18:30etik 19:30era (adin guztiak).
**Euskal perkutsioaren tailerra:** txalaparta, panderoa, ostegun edo ostiral arratsaldetan.
**Alboka:** (adin guztiak).
**Perkutsio tailerra:** ostiral arratsaldetan, (gazteak eta helduak).

**Danza moderna:** lunes de 18:30 a 19:30 (todas las edades).
**Euskal perkusioa:** Taxalaparta, pandero. Jueves o viernes por la tarde.
**Alboka:** (todas las edades).
**Percusión:** Viernes por la tarde (jóvenes y personas adultas).

## ERANDIOKO MENDIGOIZALEAK (ARITZ EDERRA)

**Ekitaldia:** Ohiko batzar orokorra
**Eguna:** urtarrilak 19, larunbata.
**Ordua**: 20:00
**Lekua:** Merkatu zaharra

Hileko irteerak:
**Irteera**: UPO mendira irteera (608 M) Areatzatik (Bizkaia) M.D.
**Eguna**: urtarrilak 19, larunbata.

**Acto:**Asamblea general ordinaria
**Día:** 19 de enero, sábado.
**Hora**: 20:00
**Dónde:** Antiguo mercado

Salidas al monte
**Salida**: Monte UPO (608M) desde Areatza (Bizkaia) M.D
**Día**: 19 de enero, sábado

---

## CLUB DE MARCHA ASTRABU ERANDIO IBILBIDEAK

i cmaeibilbideak@hotmail.com | 634 468 096

Irteerak ostegun eta igande guztietan Josu Murueta plazatik.
**Urtarrilak 6, igandea:** Saierri Munarrikolanda.
**Urtarrilak 13, igandea:** La Arena hondartza Mioño.
**Urtarrilak 20, igandea:** Getxo Munarrikolanda, Urdulitzeko haitzak Larrabasterra.
**Urtarrilak 27, igandea:** Banderas Mendia.

Salidas todos los jueves y domingos desde la plaza Josu Murueta.
**Domingo 6:** Saierri Munarrikolanda.
**Domingo 13: :** Playa La Arena Mioño.
**Domingo 20 :** Getxo Munarrikolanda, Peñas de Urduliz Larrabasterra.
**Domingo 27:** Monte Banderas.

---

## ASOCIACIÓN DE BAILES DE SALÓN DANCE GM

Dantza ikastaro berriak:
**Astelehena:** (20:00) Dantza lerroan (21:00) Batxata, merenguea, txatxatxa eta saltsa .
**Asteartea:** 20:00 Areto-dantzak.
**Asteazkena:** 20:00 twerking.
**Osteguna**: 17:00 Areto-dantzak .
**Ostirala:** (10:00) Bizkarra kolokatzea, jarrera-kokapena, (21:00) Areto-dantzak.

Nuevos cursos de baile:
**Lunes:** baile en linea (20:00) y Bachata Merengue, chachachá y salsa (21:00).
**Martes:** bailes de salón (20:00).
**Miércoles:** twerking (20:00).
**Jueves:** bailes de salón (17:00) .
**Viernes:** colocación de la espalda, posición postural (10:00) gratis, y bailes de salón (21:00).



i C/ Meso, nº 15 | Mezo kalea, 15 | www.dancegm.com | 679 480 970

# ELKARTEAK / ASOCIACIONES

## LUTXANAKO KULTUR ELKARTEA

lutxanako.kultur.elkartea@gmail.com | 669335162

### LARRUGINTZA TAILERRA / TALLER DE ARTESANÍA

Urtarriletik aurrera larrugintzari buruzko tailerra ematen jarraituko dugu maiatzera edo ekainera arte.
**Noiz**: asteartero, urtarrilaren 8an hasita, 18:00etatik 20:00etara.
**Prezioa**: hileko prezioa 35€ pertsonako, gutxienez 5 laguneko taldea osatzen bada; aldiz, hileko prezioa 30 € pertsonako, gutxienez 6 laguneko taldea osatzen bada.

A partir de Enero continuaremos impartiendo el taller de artesanía del cuero hasta Mayo o Junio.
**Día:** Todos los martes desde el 8 de enero.
**Hora:** de 18:00 a 20:00.
**Precio:** 35 euros/persona al mes para un mínimo de 5 personas o 30 euros/persona al mes para un grupo mínimo de 6 personas.

### ROBOTIKA IKASTAROA / CURSO DE ROBÓTICA

4 urteetik gorako umeentzat
**Noiz:** urtarrilaren 7tik maiatzaren 21era
**Ordua:** 18:00etatik 19:00etara (Astelehenak)
**Prezioa:** 15 euro
**Epea:** urtarrilaren 5a

Para niños mayores de 4 años.
**Día:** desde el 7 de enero hasta el 21 de mayo
**Hora:** de 18:00 a 19:00 (Lunes).
**Precio:** 15 euros.
**Plazo de inscripción:** 5 de enero.



## ERANDIOKO HHE ZENTROA / CENTRO EPA ERANDIO

### ESKAINTZA / OFERTA

944673504 | C/Desanexión 4 3º Edificio Bekoa

**DBH GRADUATUAREN TITULU OFIZIALA** eskuratzeko ikastaro guztiak.
- Eguneratze kulturala (artea, literatura, historia, oinarrizko informatika, memoriaren entrenamendua,…).
- Irakurketa, idazkera, kalkulua,… ikastea eta hobetzea .
- Internet, ingelesa eta argazki digitala.
-Unibertsitatean Sartzeko Probak Prestatzea 25 urtetik eta 45 urtetik gorakoentzat.
- Lanbide Heziketako goi mailako probetarako Prestakuntza.
- Elkartearen Tailerrak: erlaxazioa eta luzaketak, olio-pintura eta eskulanak.
- Kultur Jarduerak: museoak, antzerkia, leku interesgarrietara bisitak, e.a.

**Matrikula Epea:** urtarrilaren 28tik otsailaren 8ra.

Todos los cursos para la obtención del
**TÍTULO OFICIAL DE GRADUADO E.S.O**
- Actualización cultural (arte, literatura, Historia...).
- Aprendizaje y mejora de lectura, escritura, cálculo..).
- Internet, inglés y fotografía digital.
- Preparación de pruebas de acceso a la universidad para mayores de 25 y de 45 años.
- Preparación a pruebas de grado superior de formación profesional.
- Talleres de la Asociación: relajación y estiramiento, pintura al óleo y manualidades.
- Actividades culturales; museos, teatro, visitas a lugares de interés.

**Plazo de matrícula:** de 28 al 8 de febrero.

# UDAL ZERBITZUAK / SERVICIOS MUNICIPALES

**ERANDIOKO UDALA** / AYUNTAMIENTO

i Irailaren 23a plaza
48950-Erandio | 94 489 01 00

**KULTURA SAILA** / DEPARTAMENTO DE CULTURA

i kultura@erandio.eus | 94 489 01 40

**GAZTERIA** / JUVENTUD

i gazteria@erandio.eus | 94 602 58 91

**EUSKARA**

i euskara@erandio.eus | 94 489 01 28

**JOSU MURUETA KULTUR ETXEA** / CENTRO CULTURAL

i Josu Murueta plaza | 94 417 07 76

**ERANDIOGOIKOA GIZARTE ETXEA** /
CENTRO SOCIOCULTURAL

i Jose María Olagüe
"Txuma" nº3 | 94 453 01 81

**ALTZAGAKO LIBURUTEGIA** / BIBLIOTECA ALTZAGA

i Antonio Trueba 21
altzagabiblioteka@erandio.eus | 94 417 00 71

**ASTRABUDUKO LIBURUTEGIA** /
BIBLIOTECA ASTRABUDUA

i Josu Murueta plaza
astlib@erandio.eus | 94 467 29 46

# INFORMAZIOA / INFORMACIÓN

Erandion jarduera kulturalen bat antolatzen baduzu eta agenda honetan agertzea nahi baduzu, bidal ezazu mezu elektroniko bat informazio guztia zehaztuz (eguna, ordua, lekua, hizkuntza, telefonoak, posta elektronikoa, antolatzailea eta argazkia iragartzeko, ekintza egingo den aurreko **hilaren 15a baino lehen**.

Si organizas alguna actividad cultural en Erandio y quieres que aparezca en esta agenda, envíanos un email **antes del día 15 del mes anterior** con los siguientes datos: día, hora, lugar de realización, idioma, teléfonos, e-mail, organizador y fotografía para poder anunciarlo.

**kultura@erandio.eus**




**EKINTZA BURUTUKO DEN TOKIAN BERTAN EGONGO DIRA SARRERAK ESKURAGARRI, EKINTZA HASI BAINA ORDUBETE LEHENAGO** / LA VENTA DE ENTRADAS ESTARÁ DISPONIBLE DESDE UNA HORA ANTES DEL INICIO EN EL MISMO LUGAR DONDE SE DESARROLLE LA ACTIVIDAD



## Udal informazio guztia /
Toda la información municipal:

**http://www.erandio.eus**




FSC
MIXTO
Papel
FSC® C014864

DISEINUA / DISEÑO:
Laluca Comunicación S.L.

INPRIMAKETA / IMPRESIÓN:
Grafilur. S.A.